

Bear ete dogu Erlejiñorik?

Zer da erlejiñoa? Itz au latiñetik dator nunbait, «lotu» adierazo nai dauan berba batetik. Laktantzi idazle zaarrak au iñoan: «Jainkoari lotuta gagoz gu eta Beragaz korapillaturik jaiera ta griñaz; emendik artua dau erlejiñoak bere izena».

Beragaz dakar erlejiñoak: a) Izadiko indarretan eta indar onein gaiñetik, Jainkoaren nortasuna ezagutzea, munduaren Jaun eta Jaurle Jainkoa da-ta; b) Izaki ezkutu batek, izatez goitikoak danak daukala gizasemeen bizi-zorien neurria, eta gizasemeok beraz Aren mende dagozala siñistutea; z) gizonaren aldetik jakin daijala, ondo jakin be, siñisten dauan Jainko orrekin batasun onurakor baten sartu ta ibilteko gaidala; d) Jainkoak laguntza, bakea ta zoriona emongo dautsozala adierazten dautsoen omenezko egintza batzuk bete ta ornidutea.

Erlejiñoa onela mugatu ta zeatz azaldu daiteke: norbere burua gogo onez Jainkoaren eskuetan jartea; Izaki aske ta lurrez goitiko bategan lotuta, egia esan, Aregandik bait yatorkez laguntza ta osotasuna. Aki-no'ko Tomas jakintsuak erlejiñoa dala diñosku Jainkoari bidez zor yakon gurtza ta dedua emon al izateko trebe ta egoki egiten gaituan doaia. Erlejiñoa, beraz, ez da beste ezer gizonak Jainkoari dautson menpetasuna, goratzarre ta omen egiñik, ezagutzea baiño. Jainkoa Nor bat dala siñistutea, nai ta ezkoa da erlejiñoarentzat.

Mundu ikus-eziña ezagutzera eltzean astindu ta arrotu egin oi da gure irudimena. Gizonak Jainkoaz alkartzeko gurari bizia, irrika gartsu izaten dau; goi-laguntza bear daualako dogu ori. Intxaropena erne oi yaku Jainkoaz alkartuko gareala uste izatetik. Poza ta atsegiña bizia ta bizkortzen dira Jainkoagazko adiskidetasunak emoten dauskun zertzu-erraiñuz. Esker ona be aziagotu oi yaku otoitzari ekiñez artuko doguzan mesedeakaitik. Jainkoaren indarra ta jakituria azken bakoak dirala jakitetik, oster, bildurra sortzen. Jainkoa iraindu dogula ezagutzean ikara, naigabe ta onezkoak egiteko guraria agertzen dira, zigorra merezi dogula konturatzen bait gara. Jainko-maitasuna erne ta berotzen da Aren ontasuna ta aunditasunaz jabetu ta ixil-gordean gogoznartzean.

Fedea, siñiskera eskatzen dau erlejiñoak. Ikuspegi zeatza nor-izatez dauan Jainkoaz, Jainkoak gauza oroz dauan ardura, eta saria, arimearen ezilkortasuna, naimen askea ta oiturazko moral erantzun-bearra dira sustraizko inportantzi dabenak benetako erlejiñoan. Kristautasunean, izatez goitiko erlejiñoa da-ta, oiñarrizko siñiste oneik geitu ta osoturik dagoz Jainkoaren ezaugera luze-zabalez eta Arek gizonari buruz daukazan asmo ta xedeekin nunbait. Kristiñauak ba-daki Jainkoak itz-egin dautsela gizonai, Aren semetzazko alkartasunera zuzenduak dirala esker-bitartez, eta au Kristo'ren Gizakunde ta Eroskundeari esker-artzeko diran gauzak, salbamena lortzeko ain zuzen be, Jainkoaren egiztabideekin indartuak dagoz.

Gaur ez ei da bear dogmarik, siñiskaiarik, gaurko gizonak diñoenez; onek, alan be, edozein gauzatan onartu bear dau erlejiñoarentzat naitatzekoa dala benetako siñiskera, eta dogmak eskatzen ditula zentzuzeko siñiskaiak. Kristau siñiskaiak ez dira buruzko igarkizunak edo matazak; xede bat dauke oneik, gizona egitez argitzeko xede ta asmoa, beronen erlejiñoari ta ekanduai buruzko zer-izan guztietan argitzekoa ain zuzen be, berari dagokiozan izatez-goitiko osotasun maillako gauzak egoki ta ondo bete al izan dagizan.

Erlejiñoagazko egitekoa

Omen eta aintzazko egitekoak eskatzen ditu erlejiñoari buruzko bete-bearrak; oneikaz ezagutu oi dau gizonak Jaunak beragan daukan jabetza, eta orixegaitik billatu oi dau eten barik Aren laguntasuna ta adiskidetzeta. Iru eratakoak dira gorapenezko egintzok: a) gurtza ta be-

gurtzuzko egintza zuzenak; b) jokabide zeatz neurtua moral edo ekanduzko bete-bearretatik kanpo, eta z) jokabide zeatz neurtua moral edo ekanduzko bete-bearren mailla barruan.

Gurtza egintzak, lenengo. Erlejiñoak eskatzen dau: gurtua izan daiteela Jainkoa, eskertua, errukitua berariz, eta zer guztion gaiñetik, gure arima ta gorputzerako naitaezkoa Bera dala. Otoitzez eta buruzkapenez lortzen dira gurtza-era guztiok. Bigarren, bizieraren neurketa. Ekanduzko bete-bearretatik kanpo, erlijiño guztiak ezagutzen dabe norbere buru-ukatzeta; baita jainkozaletasuna be, Jainkoagandik onberatasuna ta mesedeak zabal ta eder jadetsi al izateko, edo-ta egunerokoaz gaiñ, santutasuna mailla bete ta goragokoan lortu al izateko. Moral bete-bearren ingurumen barruan, Jainkoa da ekandu legearen zaintzaille. Lege au, beraz, gorde bear da Aren agindu bat bezela. Eta ekandu lege ori beteteak Jainkoaren laguntza dakarsku; ez beteteak, Aren zigorra.

Erlejiñoaren premiña

Iñok ezin daike ukatu, egiaz beintzat, zelanbaiteko erlejiñoaren jarduera, gizonaren aldetik, guzti-guztiena dela. Edozeiñek dakianez, arazo onetan istoriaren laiño-arte illunean gordeta dagozan antxiñako errien bizitzak eta oiturak ikasi ezker, argi ta garbi ikusi oi da giza-talde zaar orreik eukitako erlejiñoa be ikasi ezker, argi ta garbi ikusi oi da giza-talde zaar orreik eukitako erlejiñoa be ikasi bear dala. Nainun aurkitzen dira siñiskaiak, edo beintzat gizona baiño gorago dagon izaki bat ba-dala, gizonaren ardurea daukana, gizonari lagun egin naiz berau zirpildu daikena; baita gizonak bere egite onez goitiko izaki bake-azoa, gurtua, otzandua ta eztitua izan daitekela. Nainun dira moral legeak, jainkotasunari naiz gurasoi egiñiko lotsagabekeriak edo-ta urko-lagunaren aurka egiñiko zuzengabekeriak, galazo oi dabezanak. Jainkotasuna (Jainkoa naiz jainkoak) edozein lekutan da gurtua, onetasia ta aintzatu, zeatz be zeatz legeztutako arau ta iukuntzai dago-kienez.

Erlejiño istoriak ziurpetzen dau, beraz, erlejiñoa naitaezko yakola giza-izateari, eta berez-berezkoa izan be. Au da, gizona bere izate osoaz Goi-goiko Izakiari adoragarri da-ta, gurtza emotera beartua dago; Jainkoa jaurestera, bai, berak bere-berez Jainkotzat artua bait da.

Erlejiñoa guztiena dala azaldu ta adierazteko argibiderik baliotsu

ta onetsiena da, zera erlejiño barik gizakumeak ezin leikela lortu bere obenlari da. Jainkoagan siñisten ez dauan gizona ezta oitura oneko, Jainkoa bait da bakar-bakarrik oitura on edo moraltasunaren oiñarri. Berak idatzi dau, Paul deuna aipatzeko, legearen mamiña gizonaren biotzean (Rom. 2,15). Berak emon dautse gizasemeai errazoi-argia, Berak iragarrita dauken moral legea aurkitu dagien.

Moraltasunak erlejiñoa bear dau

Erlejiñoa moraltasunaren oiñarri ez ba'da, zer ete dozu? Eztau, egia esan, ezertarako balio; gizona moral barik ez da osoro gizartearentzat: gizartearen on bakarra, elburu betea besarkatzetik urrin dago egon be.

Atsegiña be ezin daiteke izan gizonaren eta gizartearen elburu; onek moralik eza ta gaiztakeria, ez-egitekoa ta okerra lege egingo leukez. Ezta ezin leike norberak legetu oi dauan birtutea be, olako birtutea sarri zarpaillez jantzita daukagu-ta. Ez kontzientziak onartzen dauan barne-legea be, eguneroko oar-ikasiak, esperientziak erakusten dauskulako zein errez ito oi dauan gure buruak obena, pekatua. Ezta lege-zigorra be, onek ezin ditu-ta ikutu barruko errazoiak eta pentsamenduak. Ezta erriaren ustea be; au galdua, kirats egiña bait da sarritan, txarra txalotu ta ona salatu ta gaitzetsirik.

Jainkoak bakarrik irakurri al ditu buru-biotzetan gauzarik ezkutuzkutuenak. Berak bakar-bakarrik eder-etsi edo gaitz-etsi legikez zer bakotxa zelakoa dan; Berak bakarrik egoki ta zuzen zigortu naiz saritu leikez onezko naiz txarrezko pentsamenduak, egitadak eta itzak.

Moraltasuna, Jainkoagandik urrundurik, Bera baita da moral ta oiturazko legearen egille, ezin daiteke izan onartua. Mercier kardinalak, au diño: «Alperreko itxaropena da moral legea Jainkoaren ideiarda jo barik bete al izatea. Izan be, zelan daiteke moral legea betetea bear bestean ziurtuta egon ezik, Jainko zuzen eta indartsu batek lenago edo geroago birtutea ta zoriona esku baten eta oitura galdu ta mixeria bestean jarriko ditunaren ziurtasunik ezpadauka gizonak?»

Jainkoaren menpeko izanak ondu egin oi dau gizona, Jainkoaren aurka jagiteak gaizto ta oker egiten dauan lez. Gizona ezin da ona izan, erlejiño barik. Txit txarra izan nai dauan gizonak erlejiñoa aizeatu ta jazartzen dau, osoan zezetatu ta susterretik kendu nai leuke, bere asmo ziztrin eta gaiztoen aurkakoa begitantzen yakolako.

Erlejiñoa, eginpide bat da

Errazoi zuzenak darakusku Jainkoa dala gizonaren Sortzaille ta Jagole; Jaunari dagokio gizona, Aren mendean dago oso-osorik, eta gizonaren jaun ta jabe dan izate ori naitaez ezagutu bear dau gizonak gurtzaren bitartez. Bizia dubarik emon dautsolako ta beste mesede askogaitik, gizonak esker ona adierazo bear dautso Jainkoari. Gizonak ba-daki Jauna iraindu dauala, ta onek daroa damu ta penitentziara; ba-daki Jainkoa dala on guztiaren iturri, eta edozein bera-izanetan Arengana jo bear dauala; ortik sortu oi yako Jainkoari laguntasuna eskatu bearra. Gizonak Jainkoarekin daukan artu-emonak, ostera, gizonari ezartzen dautso erlejiñoari berariz ekiteko egin-bearra; au da, Jainkoa ezagutu bear dauala ta Beroni atxikia, josia aurkitzen dala osoro, eta berez Jainkoa auspez gurtu bearra daukala. Ortik, ba, erlejiñoa ezta gizonarentzat oitura bat bakarrik, bear-bearrezko yakona baiño. Eskubide bete-betea dau Jainkoak gizonari gurtza eskatzeko; eskubide au ez ezagutzea, zuzentasunari irain egitea dozu.

Erlejiñoa, egitan, zuzentasun-birtutearen atal bat besterik ez da. Onoimen bat, ziur asko. Onoimen edo birtutea, barriz, gizona on egiten dauan zera dozu; gizona gaizto ta txar dagiana, jakiña, gaitza da. Ona da, ba, erlejiñoari jardutea, erlejiñoari berea emotea; txarra, erlejiñoari muzin egitea.

Erlejiñoa zuzentasunaren (justiziaren) modu bat dozu. Onek esan gura dau zuzenari dagokionaz loturik dagoala, eta ez atsegin, erabil-errez, modako naiz pozgarri yakunarekin bakar-bakarrik.

Eritxi oker batzuk

Errialde batzuk erlejiñoa begiratzan dabe eurentzat atsegin-iturri ba'litza lez; erlejiñotik atera oi dabe oneik eder yaken gozotasuna. Baiña ori baiño geiago dogu erlejiñoa, denpora emotea baiño zerbait geiago, joko-gai edo zentzun atsegarri bat baiño geiagoatsegin yakenean, egin oi da, ta eder ez yakenean, ez dabe ortan jarduten. Era onetakoak sarri erlejiño batetik bestera egaz egiten dabe auren gurari ta irris bereziai jatekoa emon nairik, onako denpora-pasa, olgeta ta lilluralde tarako.

Emen, jakiña, era ontako gizonen errazoia ez da besterik euren bu-ruentzat atsegiña billatzea baiño. Gaiztakeri utsa dozu au. Ba-dira ka-
tolikuan be igandetan mezea entzutea izten dabenak, «ortik ezer ez datorkielako», irabazterik ain zuzen be. Errialde onei ez dautse ardus Jainkoagazko bete-bearrak burutu ez arren; onakoak Jainkoa bear dabe euren zerbitzurako. Oneintzat euren burua da mundu erdia, ez Jainkoa. Askok sabela, aragia, dirua dabez jainko gizen; emon onei egunero eskatzen daben jakin-atala ta kitu. Gauzak oker ba'doaz, Jaunagana biurtzen yatzuz bear bada; gauza ondo doanean aaztu egin oi dabe Jainkoa. Au ez da erlejiño antzekoa baiño; erlejiño-zale ta zaintzaille dirala esanik, erlejiño-izpirik be ba'leukie lez bizi diranean, egiazko erlejiñoa sal-erosketa, naste-borraste izugarri bata egiñik. Egia da erlejiñoa sarri pozaren eta zorionaren sorburu dala, baiña beraren ondorio bat da, eta ez onen jardunetik ernea. Errazoi izan daiteke oso zirtzilla, lauzuzena agertzarrean, bear bada.

Kistar ez diranak esan oi dabe katolikuak meza entzuten dabela ortara beartuak diralako bakarrik. Egia auxe da: kristañauen elizak bete-bete egiten dirala demeketan, kristau erriari erakutsi bait yako auxe dala bere bete-bearra, igandetan meza entzutea. Zuzena da eurentzat mezatan izatea, txarra mezatara ez joatea. Gauzea bardin izanda be, elizara doan perstonea ez doana baiño ohea da; doanak, izan be, bete oi dau bere Jaungoikoagazko egitekoa, bere erlejiñoaren legeari da gokionez.

Agiriko gurtza

Jainkoari zor yako agiriko gurteta, Bera bait da gorputzaren eta arimearen Sortzaille. Biak ezagutu bear dabe Aren nagusitasuna. Gurtza, ba, otoitz egiterakoan, zelako gorputzaren jabe dan ausnarturik, Jainkoa gurtu ta jauretsi bear dauala ikusiko dau bere izate osoz eta erakarrik barne-sentipenez; barruko gurtzea egiazkoa izan dadin, kanpotik be itzez, zeremoniz ta bararizko rituz adierazo bearra dauko. Beste zer askotan agirian agertu oi dogu barruan daroaguna; gure emoteak adiskidetasuna esan nai dau, gure mosuak maitasuna, baiña gure golpeak asarrea be. Zergaitik, beraz, guk ez doguz adierazko kanpotik be Jainkoari dautsogun maitasuna ta Beragaz dogun adiskidetasuna? Guk ez doguz espirituak billosten, gorputz eta arimaz egiazko izakiak baiño. Gure zentzunak gauza dira gu Jainkoagandik erri-azteko; zer edo norbaiten laguntza bear dogu kanpoko itzuraz, zentzunak itxartzeko, espirituzko oldozkun eta ideiak, zabarkeri ta arduraz galtzetik jagoteko.

Jainkoari zor yako gizarteko gurtza. Gizartea —familia naiz Estadua— jainkozko erakunde bat dogu, Jainkoaren izaki, Ari esker ona zor dautsona. Gizonak ordaindu bear dau zor au, erlejiñoa agirian be agertazorik. Alkartearen onerako da, gaiñera, erri-agintariak erlejiñoa onartu ta beroni indar emotea, erlejiño barik bada ezin leiteke egiazko onerarik izan agintaritzari gagozalarik be.

Gaur-egun zerbitzu bat egin da erlejiñoa, ez Jainkoari egiten yakona jaso, gizonari egiten yakona baiño. Auxe opa dau munduak; oba da beretzat giza-maitale izan, otoizlari baiño; oba da gizonarentzat etxeak jaso, Jainkoarentzat elizak baiño. Erlejiñoa ta itzalgarritasuna, izen mundia, gauza bardiñak dira. Izatez erlejiñoa gitxiago da deun egiteko, «modu ona» edo lotsa ta erabidea egiteko baiño.

Au guzti au gauzen egokitasunaren gibel eta alderantzia, ezta besterik. Erlejiñoa zuzena da: gizonaren naitaezko premiña: izan be, Jainko Egillearen eginkizunai erantzutea, gizonarenai erantzutea baiño garrantzi aundiagokoa da. Alan eta guzti be, Jainkoareki eginkizunak gizonari dagokiozanak be barruan artzen ditu, edo-ta berekin daroaz. Gizonagazko eginkizunak, jakiña, osorik beteten algingduko dira Jainkoari buruzkoakaz zintzo diarduenak.

Erlejiño ta fede bakoak ekarri oi dabezan errazoi-atxakiak, geiene-

tan, ez ditugu besterik euren erlejiñoari ekiteko kemenik-eza eskaltzeko ke-geriza baiño, euren ori egiteko astunegi dituelako. Erlejiñoa egiazko ba'da, eurak euren bizitzak aldatu bearke leukiez, edo-ta betiko inperri, ke-gerizaren atxaki ta argibideak, beraz, irain egingo leuskio giza-adimenari zentzatzeko eskatuaz.

Erljiñoari buruz bape ardura barik agertzen yakuz gaur asko ta asko, ez dabe olako lokarririk gura. Alan be kristau lez bide dagie ur ta leorrez. Baiña zek banatzen ditu onakoak eta jentillak, erlejiño ba-geak? Erlejiñoari dagokion norbere buruagazko jardunik ez dabe eza-gutu nai, ortaz zabarkeri gorrian bizi dira. Beste itz batzuetan esanda, Jainkoaz ardura bako, ortan galdu-irabazirik ez ba'leukie lez, jokatu oi dabe. Eurak orraitino Jaunagan siñisten dabela diñoskue. Emen ez dago olakoentzat atxakirik.

Oneik euren emazte, ume ta lagun-adiskidenganako artu-emon eta beste egitekoak beteten dabez, baiña ez dabez edo nagi dabiltz oso Jainkoagazko eginkizunik geñenak beteten. Lotsagarri ta gaizto! Jainkoa Jainko danez Jainko da ta gu Aren izakiak; loturik gagoz, ba, Ari zor dautsoguna emotera, legez ta zuzenbidez.

Erlejiñoak, ba, ardura izan bear dausku beste ezek baiño geiago. Onexek artu bear dau gure bizitzan tokirik nabarmen eta garrantzi-tsuena.

A. O.

ardatza ta
tresnarik
na

«A R

Avda. 26 de ab